

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Apirilaren 30a arte zabalik dago Nafarroako Gobernuaren ingurumen-hezkuntzako zentroetara eskola-bisitak egiteko epea

*Eskaerak zentro bakoitzeko webguneen bidez egin beharko dira*

Miércoles, 03 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak izena emateko epea zabaldu du kontzertatutako bisiten udaberriko eskola-kanpainarako. Bisita horiek honako leku hauetara egingo dira: [Otsagabia](#), [Erronkari](#) eta [Irunberriko](#) naturaren interpretazio zentroetara (NIZ), [Urbasa eta Andiako](#) natur parkeetara, [Bertizko Jaurerirra](#) eta "El Bordón" hegaztien behatokira, [Las Cañasko urmaelean](#) (Viana).



Erronkaribar.

Udaberriko kanpaina honetan ingurumeneko ekipamenduetara bisitak egin nahi dituzten ikastetxeek, apiriletik ekainera ezartzen dena, eskaerak 2012ko apirilaren 30a baino lehen egin beharko dituzte ekipamenduetako webguneen bidez eta telefonoz Vianako behatokiaren kasuan (948 38 24 28 eta 696 83 08 98). Bisitak, doakoak (ikastetxeek soilik garraio-gastuak ordainduko dituzte), hautatutako datetan egin ahalko dira, eta postaz edo posta elektronikoz baieztatu beharko dituzte ingurumeneko hezkuntza-zentroek. Gehienez ere 60 ikasle izango dira bisita bakoitzeko interpretazio-zentroetan eta natur parkeetan edo 50 hegaztien behatokian.

Nafarroako Gobernuak hezkuntzako materialak argitaratzen ditu eskolen bisita-programa horretarako, berariazkoak naturaren interpretazio-zentro eta hegazti-behatoki bakoitzerako, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleentzat dira eta baita DBHko zikloko 1. eta 2. ikasleentzat ere. Material horiek eskuratzeko interesa duten ikastetxeek beren bisitak hitzartzeko unean bete beharreko formularioan eskatu ahalko dituzte.

Bisiten eskola-programaren arreta gaztelaniaz eta euskaraz eskainiko dute begirale espezializatuek, eta begirale horiek taldea ibilbidean zehar gidatzeaz gain eta instalazio horiek bisitatzeaz gain, aurretiaz ikastetxe bakoitzeko irakasleekin zehazten diren hezkuntza-jarduera osagarriak antolatzen dituzte

### Bisiten helburua

Landa Garapen eta Toki Administrazio Departamentuak urtean behin

ikastetxeen esku jartzen dituzte naturaren interpretazio-zentroak eta hegaztien behatokiak, Nafarroako Ingurumen Hezkuntzaren garapenean era aktiboan laguntzeko xedearekin. Urtean behin bi kanpaina deitzen dira NIZetara eta hegaztien behatokitara bisitak hitzartzeko: udazkena-negua eta udaberria.

Ingurumen-hezkuntzako ekipamendu horiekin Departamentuak ikastetxeei erakutsi nahi dizkie kokatuta dauden zonaldeetako ezaugarri biologiko, geologiko eta gizatiar nagusiak, gizakiak bere ingurunearekin dituen harremanak hobeto ulertzeko asmoz, bertako natura eta kultur balioen ezagutza erraztea, eta ingurumenaren kontserbazioari lagunduko dioten jarrerak garatzen sustatzea.

Hezkuntzako baliabide modura, ekipamendu horiek dituzte: erakusketak, joko elkarreragileak, maketak, bideoak eta ikus-entzunezko ekoizpenak... bai eta irakasleei laguntzeko material didaktikoak ere ikasgelan jarduerak egiteko (bisita aurretik eta ondoren).

Bestalde, hegaztien behatokitik kokatuta dauden hezeguneetako (Natura Erreserba deklaratuak) natura-balioak eta ekosistemak ezagutzera eman nahi dira, eta haien kontserbazio nahiz kudeaketatik sortutako arazoek ulermena sustatzea, haienganako jokabide positiboaren garapena sustatuz. Zentro horiek panelekin, teleskopioekin eta prismatikoekin ekipatuta daude hezegune horietan dauden hegaztiak (negutarrak eta habia egileak) behatzeko eta identifikatzeko

### **Aurreko kanpainetako partaideak**

Bertizko Jaurerria eta Urbasa zein Andiako natur parkeek 72.000 eta 100.000 bisitari jasotzen dituzte urtean hurrenez hurren. Interpretazio-zentro eta hegazti-behatokiei dagokienez, urtean 35.000 eta 40.000 bisitarik erabiltzen dute eskaintzen zaizkien zerbitzuetakoren bat eta haien artean daude: zentrorako bisita, kanporako ibilaldi gidatua, dibulgaziozko hitzaldi bat edo erakusketa bat, besteak beste. Kopuru horretatik, urtean 32.000 bat ikasleak dira, ekipamendu horien ingurumen-hezkuntzako jardueretan parte hartzen dute, eta haiek Ingurumen Hezkuntza arloan ikastetxeentzako laguntza-tresna garrantzitsuak bihurtzen dira. 2013ko udaberriko kanpaina honetan, begirale/ikasle ratioak handitu dira eta eskaintako jarduera-motak berriz egokitu dira baliabideak ahalik eta gehien optimizatzeko, 17 urte baino gehiago dituen eskaintza horri eusteko.

Interpretazio-zentroen, hegazti-behatokien eta natur parkeen erabilera publikoaren kudeaketa tokiko enpresen laguntzarekin egiten da, Gestion Ambiental de Navarra sozietate publikoaren zuzendaritza teknikoarekin.